



Hiztegitxoa

Hobeto irakurtzen laguntzeko



adore kemena	Nikolek adore apur bat behar zuela ohartu zen mutila.	83
akuilu zirikatzailea	...ezinezkoa zen arren, akuilu gisa jokatzea nuen helburua.	6
aldaka mehaka, gerri aldea, kadera	...kopeta belztu eta aldaketan jarri zituen eskuak.	19
aldare elizako mahai nagusia	Orduan egin behar izan zen gune hau, aldarearen azpian. Eta hemen lurperatu zituzten biak...	107
alergia hipersentikortasun erreakzioa	...Rebeka ezin dela mendira joan. Alergia bitxia die eltxoei.	18
amarru azpikeria, trikimailua	Bizitza osoa eman dugu hau prestatzen. Ezkutuan. Isilpean. Probak eta amarruak .	73
amildegi erroitza, malkarra	Bospasei metroko amildegi beltza zuen inguruan.	103
antzeman igarri, nabaritu	Neskak estutasuna antzeman zion tonuan.	30
arakatu miatu, ikertu	Lasaitasun apur batez, atexka griseko beste aldea arakatu genuen.	65
arerio etsaia	Laguna zen? Arerioa ? Lasterka hasi behar nuen? Garrasika?	14
arnasestuka ito beharrean	...esan zuen amonak, artean ere apur bat arnasestuka .	63
arrakala pitzadura, arraidura	Ehun bat metro aurrerago ikusten zen harrizko arrakala baterantz abiatu ziren biak, korrika eta muturka.	34
arrapaladan arineketan, ziztuan	Kaiet eta Nikole arrapaladan zihoazen itsaso alderantz...	40
asaldatu aztoratu, urduritu	Kaietek asaldaturik ikusi zuen amonaren gorpuzkera txikia eta itxuraz hauskorra.	57
atexka atetxoa	Biok, biloba eta aitona, zain egon ginen, atexkaren zirrikituari begira...	54
aurren lehenengoa, lehenbizikoa	Kaiet zihoan aurrena , gorantz.	89
bahitu norbait indarrez eraman	Polizia beldur omen da ez ote zituzten bahitu .	21
bapo ederto, ederki	Hondartzan olatuak hartzen ibili ondoren, bapo nekatuta zituen giharrak.	16
barrabaskeria bihurrikeria, aldrebeskeria	Gerra amaitu ondoren ere barrabaskeria haiek egiten jarraitu zuenean, debekatu nahi izan genion.	73
bart joan den gauean	Bart zure zain geratu nintzen ohean...	16
belaki esponja	...eta nik atzean sartu behar izan nuen, belaki berde ilun baten azpian.	23
berebiziko aparta, ohiz kanpokoa	Hartz Handia zen zeruan ezagutzen nuen animaliarik berebizikoena .	81
bermatu apoiatu, finkatu	Aitona alboko hormaren kontra bermatu zen, atsedean hartzeko eta hobeto pentsatzeko.	49
besaulki butaka	Besaulki hori batean jesarri eta eskuak elkartu zituen emakumeak.	64
bidexka bidezidorra	— Bikain? Jendea besterik ez da bere bidexketan .	113



bihurgunetsu bihurritua	Hizki oso bihurgunetsuak .	93
biziki oso-oso	Garrantzitsua da. Biziki garrantzitsua.	15
bizki biritxiak (Lap. kost haitz bikiak)	...Kasinoko eraikintzarretik pasa eta beste muturreko arrokozko bi bizkietaraino .	22
blaitu bustialdia	A zer nolako blaitua .	42
bozgorailu megafonoa	Kaietek ahora eraman zituen eskuak, bozgorailu gisa erabiltzeko...	33
brausta kolpean	Brausta zutitu nintzen eskua luzatzeko.	38
bulebar etorbide zabala eta arboladuna	Itsasoaren bulebarrean bizi zen, hondartzaren ondoan	22
buruargitasun adimena	Gure kemenaz eta buruargitasunaz gain, pazientzia ere behar da.	92
burugabe zoroa, itsua	Inoiz ezagutu dudan pertsonarik argiena, basatiena, beldurgarriena. Eta burugabeena .	69
burugain kaskoa	Haren burugaina billar-bola baten modukoa da.	12
buruhauste arazoa, kezka	Amonak aterpeko sarrerarantz jo zuen, bilobaren buruhausteei jaramonik egin gabe.	62
burutik joan zoratu, erotu	«Beharbada burutik joan da.»	78
deigarri nabarmena	Buruan triku distiratsu bat izango balu bezain deigarria .	109
demontre arraio, deabru	Zer demontre ziren, ba, babesle-saga bat?	62
dohakabe zorigaiztokoa, koitadua, gaixoa	Bere Publio dohakabea . Bizitza osoa zeraman gizonak berataz maitemindua...	101
edadetu adinekoa, zaharra	Emakume edadetu baten aurpegia agertu zen azpian.	47
egunsenti goizaldea, goiztiria	Egunsentirako bueltatzeko asmoa zuen.	18
eltxo intsektu ziztatzailea	Eltxoak ginen nazientzat, eta orain uste dut jolas egiten zutela gurekin.	64
enbata ekaitza, erauntsia, galerna	...zoragarri ikusten da itsasoaren haserrea. Haizea eta enbata .	134
enigma misterioa	Beti izan ditut gogoko misterioak eta jolasak. Abenturak eta enigmak .	55
eraitsi bota	Inguratu, eraitsi eta korapilo azkarra egin.	123
ereindakoa zabaldua	—Zazpiak bat esamoldea ere hor dago, Anttonek ereindakoa ...	117
eromen zorakeria	Noraino iristen zen auskalo noren eromenak eraikitako barne-bid hura?	102
erreparatu zerbaitez ohartu	Goiko karteltxoari erreparatu nion beste behin...	55
erretxina zuhaitz-landareen jarioa	—Apalak dira —egiaztatu nion aitonari. Erretxina usaina hartu nuen—. Ez dago inor.	48



errieta egin agiraka egin, bronka bota	Danielek errieta egin ondoren, ahizpak alde egin zuen.	74
espresuki apropos, nahita, berariaz	Norbaitek espresuki prestaturiko lekua da.	55
etsipenez desesperazioz	Alarrek ezpainak zimurtu zituen, etsipenez .	17
ezbaika zalantzan, dudan	Kaietek ezpainak estutu zituen, bere buruarekin ezbaika .	34
ezpainak zimurtu kezka keinua egin	Alarrek ezpainak zimurtu zituen, etsipenez.	17
ezten arantza gisakoa	Metro bateko ezten luzea igaro zitzaion albo-albotik hegan. Atzeko apalean sartu zen.	106
gaitz handia	Bada beste munstro guztiak baino gaitzagoa .	83
galarazi eragotzi, trabatu	Geziena atentzioa galarazteko zerbait zela iruditu zait.	109
garrasika oihuka, txilioka	Laguna zen? Arerioa? Lasterka hasi behar nuen? Garrasika?	14
garratz latza, mingarria	Nikoleren begiek oihu garratza egiten zuten: “Orain zer?”	43
gehiegikeria neurritz kanpokoa, exajerazioa	Kaietek gehiegikeria zela uste zuen.	19
giltzarri gakoa	“Ero bat aski da”. Han egon behar zuen giltzarriak . Nonbait.	55
gurari apeta, desioa	Eta gurari bat eskatuz gero, bete egin omen da.	58
habe zutabea	Goiko habe nagusietako batean idatzitako esaldi bati erreparatu zion.	105
hamaika anitz	Hamaika abenturaz osaturiko itsasoa.	20
hanka-puntetan iskanbila egin barik	Hanka-puntetan atera nintzen logelatik.	14
hasperen zizpurua, arnasbehera	Hasperen luze baten ondoren, inguruko isiltasan itzelaz ohartu nintzen.	65
hausnarrean gogoetatzen, pentsakor	Aitona geratu egin zen une baten. Besoak gurutzatu zituen, hausnarrean .	44
hautu aukera	Abdulari berari zegokiola bere bizitzaren bidea jorratzea eta hautuak egitea.	111
helduleku eskudela, baranda	Handik oso metro gutxitara, sokazko zubi estu eta oker bat azaldu zitzaigun, heldulekurik gabea.	103
hurreratu hurbildu	Aitona Daniel gehiago hurreratu zen.	76
igurtzi frotatu, ferekatu	Amonak eskuak igurtzi eta hobeto kokatu zuen buruko tximeleta-sarea.	74
ihardetsi erantzun, arrapostu	—Zer? — ihardetsi zion mutilak.	33
indargetu ahuldu	...Bihotzez lagundu zituen amets ugari argaltzen eta indargetzen .	58
irmo adorez, tinko	...ur zikina zeharkatu nuen beste behin, nazkaz baina irmo .	61



iturburu jatorria, sorrera	Nilo ibaiaren iturburua aurkitu nahi zuen, eta ez zuen etxera esku hutsik itzuli nahi.	44
izadi natura	Begiratu gaztelua, liburuak, eremua, izadia , zientzia, euskara, errespetua...	120
izarzale ameslaria	Izan dira izarzale asko nire aurretik.	11
jaramon egin kasu egin	Amonak aterpeko sarrerarantz jo zuen, bilobaren buruhausteei jaramonik egin gabe.	62
jendarme polizia frantsesa	Esango nuke asko jendarmeak direla.	24
jorratu landu	...eta Abdulari berari zegokiola bere bizitzaren bidea jorratzea eta hautuak egitea.	111
karkara barre algara	Triku-emakumeak sekulako karkara egin zuen.	112
karraska zarata zerbait apurtzean	Karraska hotsa entzun nuen.	53
katigatuta lotua, engantxatuta	...sandalia batzuk zuzi baten azpian, armadurak, sare-kotak, lantza bat ezkutu baten katigatuta ...	94
kolko paparra, bularraren goi aldea	Zer neukan ahoan sartuta? Ahoan eta kolkoan .	37
kosk egin haginka egin	Nire ezpainei kosk egin eta leihotik begiratu nuen.	12
kresal gesala, itsas uraren gazia	...itsasoaren kolpeak eta kresala jasaten.	40
krudel ankerra, odolzalea	Gure zain zegoen aho krudel bat ematen zuen.	39
kuttunen gogokoena, maiteena	Huraxe dut, izarzale guztien artetik, kuttunen .	11
labainkor irristakor	Oso labainkor dago, aitona...	48
labezomorro intsektua (<i>cucaracha</i>)	Labezomorro baten modura harrapatu gaituzte!	109
laga utzi	Laga lehoia. Beste era batera ordainaraziko diot Rebekari.	102
lahar sasia, sastraka	Lahar edo sasi txikiak ere badu bere itzala.	105
lakar latza, zakarra	Azal lakar eta grisa hain zen erreala.	79
larriduraz aztoratuta, kezkatuta	Publiok larriduraz begiratu zion.	101
larrutu azala erauzi	harrapatzen zituenekin: hala behar bazuen, larrutu , erdibitu edo triskatu.	69
latz gogorra	Ezuste latza kanoia hartu bagenu!	103
lazgarri beldurgarria	Bazirudien haren inguruan irudimenaren munstrorik lazgarrienak sortzen zirela.	70
laztandu ferekatu, xerak egin	...gehitu zuen aitona, patilla bat laztantz en zuen bitartean.	110
leial fidela	Arnaud ausarta eta sutua zen, tontor guztiak eta sakonune guztiak konkistatzeko geratu bere giharren indarraz. Noblea, leiala .	45



leihatila leiho txikia	Hormetako leihatilek kanpoko paisaia ikusten uzten zuten.	89
lizun usteldua bezala, hondatua	Lizun eta alga usainak iritsi zitzaizkidan	37
mahuka manga	Ahotik belar aletxo gehiago kendu nituen jertsearen mahukaz .	38
maisuki trebeki	...amona Rebekak maisuki gidatu zituen...	51
mamu fantasma, beldurra	Fatimak imajinatu ere ezin direnak lortzen zituen, eta gerraren azken uneetan jada bere barneko mamu beltz guztiak askatu zituen.	69
masta ontzietako haga	Txingudi badiako itsasontzietako masten eta soken arteko...	13
mela-mela eginda blai, busti-bustirik	Arduraturik nengoen, baina zera onartu behar nuen: egoera oso kaskarra izan arren, mela-mela eginda egon arren, aitonak ez zuen ezulik egiten jada.	75
miragarri harrigarria, txunditzekoa	...sinesgaitza eta miragarria bazirudien ere, amona Rebekak maisuki gidatu zuen...	51
mirotsita geratu harrituta, sor eta lor	Mirotsita geratu nintzen: — Puntutxo horiek zeruko konstelazioak irudikatzen dituzte, aitona.	76
murmurikatu ahapeka esan, xuxurlatu	Hiru ordu —murmurikatu zuen.	27
murmurio xuxurla	Murmurio bat entzuten nuen, erreka batena balitz bezala.	50
oharkabea inor konturatu gabe	Oharkabea pasatzeko zen, eta guk horixe nahi dugu.	87
oholez zurezko xafla luzanga	Orain, hormak kristal berdezkoak zirudien, eta zoruak oholez egina.	102
oldartu eraso itxuran zuzendu	Anaia ona zen defendatzen eta oldartzen .	119
orezta peka, orina	Neska bitxia da Nikole. Orezta laranja betea, jatorra eta bizia.	133
orro garrasia, marrua, makakorroa	Piztiak orro egin zuen, metal lodizko kaiolatzar baten barrutik.	127
oskarbi zohardia, garbia	Fantasiazko gaztelua, zeru oskarbia , Larretxeako baserria bere zaindarekin... eta magiaz beteriko izadia.	134
ozta-ozta doi-doi, justu-justu	Ozta-ozta ikusten zen gezi bat zeukan marraztuta alboan.	81
patu zoria, destinoa	Ai, patuaren joko maltzurra! Zergatik ez zen horrela maitemindu Daniel?	101
pegar pitxerra	Emakumeek urez beteriko pegarra edo pitxerra eraman behar zuten buru gainean, orekan, korrika egiten zuten bitartean.	117
piztu izekia, biztua	Leizeko goialdean, hamaika argitxok egiten zuten distira, armiarma-sare piztuak balira bezala.	76
porlan zementua	Abbadiaren Eremuan bertan baziren halako batzuk: porlanezkoak eta sendoak.	56
pospolo mitxa	Kutxa txiki bat du barruan. Pospolo kutxa da.	103
preseski hain zuzen	Hura ez zegoen disekaturik preseski .	127
printza izpia, distira	...tarteka eguzkiak bere printzak lerratzen zituen lainoen artean.	132



puska batez apur batean, pitin baten	Aitona sabaiari begira egon zen puska batez .	13
samur biguna, bihozkorra	Aitonaren begirada samurra sumatu nuen.	13
sona ospea	Nahiko sona izan du,	102
sosegu lasaitasuna	Isiltasuna eta oharkabea igarotzea. Sosegua eta bakea.	113
sotil ederra, dotorea	Soinu baxu eta sotila .	91
sumin amorrua, haserrea	Bere hanka-sartzea izan zen, eta ez zuen nahi beste inork arindu ziezaion bere buruarekiko sumina .	109
tamalez zoritxarrez	Gau hartan, tamalez , ez zidaten graziarik egiten...	13
tarrapatata arineketan, arrapaladan	Nikolek tarrapatata egin zituen eremuko goialderainoko azken metroak.	31
tiraldi tirakada	Kaietek tiraldi bat sumatu zuen elastikoan.	52
titiritero txotxongiloekin dabilena	Ezagutzen ez dutenek titiriteroa edo zirkuko artista xebrereren bat dela uste izaten dute.	13
triku kirikiñoa, kirikolatza, sagarroia	...eta panpina bitxi eta apur bat penagarri baten itxura ematen ziotela hark gehi triku itxurako ileak.	101
triskatu birrindu	Aitortu ezingo nizkizukeenak egiten zituen harrapatzen zituenekin: hala behar bazuen, larrutu, edo erdibitu, edo triskatu .	69
txita oilo jaio berria	Txita baten moduan ibiltzen zitzaion atzetik.	69
ukabil esku itxia	Kaietek ukabilak eta hortzak estutu zituen.	122
ukendu gantzua, krema / pomada	Makillajea esatea gutxi zen egoera hartako: emakume hark hamabost kilo krema eta ukendu zituen.	109
urratu tarratada	Odola beti da deigarria, baina urratu txikiak dira...	46
urtetsu adinekoa	Bi gazte ikusi ditut: mutiko bat eta neskato bat. Eta emakume urtetsu bat.	72
uxatu aienatu, aldenarazi	Eskua pasatu nuen aurpegitik, pentsamendu haiek uxatzeko .	79
xarma enkantua, lilura	Fatimaren itxurak, ordea, gutxi zuen ipuinetako printzesen xarmatik .	71
xehetasun zehaztasun, zertzelada, ñabardur	Anttonek milaka gauza egin zituen bizirik zela, gazteluari ere ehunka xehetasun arkitektoniko erantsi zizkion...	107
xelebre bitxia / txistosoa, gatzduna	Ezagutzen ez dutenek titiriteroa edo zirkuko artista xebrereren bat dela uste izaten dute.	13
xuxurlatu ahapeka esan, isilean	— Alar, zurekin hitz egin behar dut — xuxurlatu zidan.	15
zapla txaloa, masailekoa	Zapla eman nion nire kopetari.	60
zirkinik egin gabe mugimendu txikirik ere ez, geldi	— Kaietek eta Nikolek begiak zabal-zabalik eta zirkinik egin gabe entzuten zioten.	70
zirrikitu irekidura, bitartea	Begirada azkar batez aztertu zuen aurrean zeukan zirrikitu zabala.	106



zizelkatu grabatu	Abbadia Gazteluan, badira han-hemen zizelkaturiko esaera batzuk, hizkuntza askotan.	59
zuhur azkarra, burutsua	“Ero bat aski da harri bat putzura jaurtitzeko, baina sei zuhur behar dira hura handik ateratzeko”	60
zunburrun burrunba, zalaparta	Klik gehiago eta ssssssssup!, zunburrun hotsa.	105
zurrunbilo zirimola, nahastea	Eta orain zurrunbilo burugabe baten erdian zegoen, bahiketak, desagerpenak, lehoiak, naziak... Eta hasi besterik ez zen egin, antza.	77
zurrunka lotan zarata desatsegina, korroka	Minutu batzuk geroago, aitonaren zurrunka arinak entzuten ziren.	14
zutoin paldoa, postea	San Juan sua balitz bezala, zutoin luze bat zegoen.	84
zuzi lastargia, tortxa	Egurrezko mendixka bat zirudien. Inguruan, ehunka zuzi sutan.	84